

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria ■ www.euskalherriasozialista.net

PP-EAJ ituna murrizketak
eta ustelkeria sostengatzeko

Antolatu

greba orokorra

eskuinaren aurka!

65 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro



2. ETaren behin betiko arma gabetzea. Masen borroka da bide bakarra!
5. EAJaren benetako aurpegia • 8. Estatu frantziarreko hauteskondeak: Ez Macron, Ez Le Pen!
11. Venezuela egoera kritikoan • 14. Erreferenduma Turkian • 16. Errusiako Iraultza
eta auzi nazionala • 20. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari erasorik ez!
21. Elkartasuna maitatzaren 16 eta 23ko irakasleen grebarekin! • 23. Erraustegirik EZ!

ETAren behin betiko arma gabetzea

**Autodeterminazio eskubidearen alde
Euskal Herria Sozialista baten alde!**

Masen borroka da bide bakarra!

EZKER IRAULTZAILEA
Euskal Herria

Apirilaren 8an, ekintza polizialek boikoteaturiko hainbat arma gabetze saiakeretatik ia bost urte igaro ondoren, ETA guztiz eta behin betikoz desarmatu da. Baionan milaka pertsona bildu ziren borroka armatuko 50 urterti amaiera ematen dion gertakari honi euren babesa adierazteko, PPren gobernuari tinko eskatuz presoak Euskal Herriko kartzeletara hurbiltzea, larriki gaixorik daudenak askatzea eta Hego Euskal Herriaren ezinbesteko desmilitarizazioa, presentzia polizial gehien duen Europako lurraldea baita.

ETAk behin betiko su-etena iragarri zuenetik armak erabat utzi dituen arte, PPren gobernuak izandako jarrera argia izan da: prozesua oztopatzeko ahalegin guztiak egin ditu, eta Ezker Abertzalearen aurkako errepresioa gogortu du. Jakina, ekintza armatuak alde batera uzteko erabakia “tregua tranpatzat” hartu zuen PPK, eta orain arma gabetzearekin gustura ez, eta eskuin espainiarrak “arma gabetze ideologikoa” eskatzen du.

Eskuinak uko egin dio behin eta berriz euskal presoak Euskal He-

rrira hurbiltzeari, zigor gehigarria erantsiz presoen senide eta lagunei. Gainera, ez du legea betetzen, eta ez ditu gaixo dauden presoak askatzen. Inolako eragozpenik gabe jazarri dituzte nazioarteko egiaztatzaileak; eta, nahiz eta polizia frantziarrak arma gabetzea legezkoa zela iragarri, azken momentura arte neurri errepresiboen arriskua mahai gainean egon zen.

PPk ez du zalantzarik egiten ETAren biktimak demagogikoki erabiltzeko orduan, baina, inola ere, ez ditu aitortzen diktadura frankistak utzitako milaka eta milaka biktimak: erailak, desagertuak, torturatuak eta kartzelatuak. Ez diete inolako erreparaziorik, onarpenik edo justiziarik eskaintzen. Zaila da nazka ez sentitzea estatu aparatutik faxistarik kanporatu ez duten gobernu eta politikarien aurrean. Epaitegiak erabiltzen dituzten bitartean justizia aldarrikatzen dutenak jartzeko —txiolariak eta raperoak kartzelan sartu dituzte espainiar faxismoaren sinboloak salatzeagatik—, Carrero Blanco bezalako jeneral terroristei gorazarre egiten diete eta estatu espainiarreko historiako hiltzaile handiena izan den Francoren memoria gorestekoa diru-laguntzak ematen dituzte.

**Arma gabetzearen arrazoi
politikoak: masen borrokaren
papera ETAren ekintza
armatuaren aurrean**

PPk etengabe erabili du garaile eta galtzaileen diskurtsoa, ekintza polizialak eta errepresioa izan direla ETA arma gabetzeko gakoak esanez. Errealitatea ordea guztiz bestelakoa da. ETAk ekintza armatuak alde batera uzteko arrazoi nagusia Euskal Herrian nahiz nazioartean masen borrokak izandako goraldia da. Euskal Herrian krisia hasi zenean burutu genituen greba orokorrak eta langileen manifestazio masiboak, Venezuelako iraultzaren eta Amerika Latinako borroka handien eragina, Udaberri Arabiarra, M15..., mugimendu horiek praktikan erakutsi zuten langileen eta gazteen mobilizazio kontzientea dela gauzak aldatzeko eta zapaltzaileei aurre egiteko bide bakarra. Ondorio hori gero eta errotuago egonik Euskal Herriko langile eta gazteen artean, Ezker Abertzaleko oinarriaren eta militanteen artean, era berean esperientziak ondorioztatzen zuen ETAren metodoek ez ziotela masen mugimendu horri laguntzen, baizik eta borroka ahultzen zutela.



Espainiar nahiz euskal burgesiak, estatuaren indar errepresiboen eta komunikabideen laguntzaz, etengabe erabili dute “Guztia ETA da” aitzakia gazte eta langileen mobilizazio masiboak kriminalizatzeko, batez ere Euskal Herrian, baina baita estatuko gainerako lekuetan ere. Aitzakia hori erabiliz, klase dominatzaileak estatu aparatuen gaitasun errepresiboa hantitu ahal izan du. PPK eta PSOEko zuzendaritzak Alderdien Legea bezalako lege antidemokratikoak onartzea justifikatu dute —EAJk ondo jakin zuen lege horri etekina ateratzeko, torturatzeko, dispartatzeko, alderdiak legez kanporatzeko, egunkariak ixteko, etab. Jakina, estrategia horrek ere balio izan du herritarrek komunikabide handiek etengabe zabaltzen duten propaganda espainiar atzerakoiarekin saturatzeko.

Ezker Abertzaleak borroka politikoaren alde egiteko eta ekintza

armatuen metodo antzuak alde batera uzteko erabakiak prozesu horri erantzuten dio. Langileek eta gazteek, urteetako ilegalizazioaren ondoren, EHBilduri emandako babesa horren adibide garbia da.

Kalean altxamendu sozialak jarraitu du: Hiritar Mareak, Duintasun Martxak, erabakitze eskubidearen aldeko mobilizazio erraldoiak Katalunian, presoak gerturatzea eskatzeko manifestazio erraldoiak Euskal Herrian, LOMCEren aurkako eta hezkuntza publikoaren aldeko ikasle grebak, etab. Mobilizazio horiek guztiek erakusten dute klase arteko borrokaren beste fase batean gaudela. 78ko erregimenak eta bipartidismoak astinaldi gogorra izan dute, eta ez dira erreuperatzen. Urteetako egonkortasun politiko kapitalistaren ondoren, guztia lehertu da. Horren isla da Podemos sortu eta horren azkar hazi izana —baita Euskal Herrian ere—. Hori dela eta, ETAren behin betiko arma ga-

betzea eta Ezker Abertzalearen inguruko milaka eta milaka gazte eta langilek erakutsi duten sen politikoak mahai gainean jarri du gaia: Euskal Herriaren askapen nazionala lortzeko erregimen kapitalista suntsitu behar da.

**Autodeterminazioaren alde,
Euskal Herria Sozialista
baten alde!**

Ezker Abertzalea bidegurutze historiko batean dago. Urteetako borrokaren, sakrifizio ikaragarrien eta militantziak emandako guztia- ren ondoren, esperientziak erakutsi du bide bakarra dagoela Euskal Herriko auzi nazionala benetan konpontzeko: programa sozialista iraultzailea jarri behar da praktikan, hori aurrera eramateko gai den klase bakarrean oinarrituz, langile klasean alegia.

Zapalkuntza nazionala eta klasekoa erabat loturik daude. Kapitalista espainiarrek eta euskaldunek



interes berbera dute: egungo ordena soziala mantentzea beren dominazioarekin jarraitzeko. Hori dela eta, ezinezkoa da zapalkuntza nazional eta klasekoarekin amaitzea, ez bada sistema kapitalistaren oinarriekin amaitzen. Eta horretarako, botere ekonomiko handiak, banka eta monopolioak desjabetu behar dira, aberastasun guztia langile klasearen esku jarritz, herritarren kontrol demokratikopean.

Jakina, borroka armatua alde batera uztea aurrera pauso ikaragarria da, baina horrek Euskal Herriko borroka iraultzailea indartzeko eta antolatzeke balio behar du. Autodeterminazio eskubidea lortzeko ez ezik, gure herriaren gehiengo zabalak hainbeste eskatu duen presoan amnistia eta errepresioarekin amaitzea eskuratzeko ere, PPk eta EAJk ez dute kontzesiorik egingo, ez bada kaleko masen mobilizazioarekin hori egitera behartuz.

Pasa den martxoaren 5ean Arnaldo Otegi Garan egindako elkarrizketa batean esan zuen: “EAJ ez dago prozesu subiranistan, besteak beste, dagoen bezala ondo doakiolako bestelako saltsetan sartu gabe”. Testuinguru horretan, Urkullu Kataluniako prozesu subiranistatik

aldendu eta 2020 jarri du “Estatuarekin bi aldeko akordio bat” lortzeko epemuga gisa, gero hori erreferendum bidez onartzen ote den ikusteko. Hori da guztia. Ez autodeterminazio eskubiderik, ez antzekoa izan daitekeen beste ezer.

Hain zuzen ere, arma gabetzearen aste berean, EAJk PPn oinarritu da EAEn kapitalisten zerbitzura dauden aurrekontu antisozialak onartzeko. Modu horretan, EAJk gauza bera egitea da asmoa Madrilén Rajoyren aurrekontuak aurrera ateratzeko. Euskal Herriko gatazka nazionalaren aurrean alternatiba bideragarri bat lortzeko behin eta berriz euskal burgesiarekin eta bere erakundeekin —izan EAJ, izan EA— aliantzak eta itunak lortzeko estrategiak eta nazioarteko eragileetan babesa bilatzeko saiakerak porrotera bakarrik eraman dezakete.

Ezker Abertzaleak erakutsi du atzean milaka eta milaka pertsonen babesa, indarra et nahia duela ezkerreko alternatiba kontsekuentte bat defendatzeko. Masen mobilizazio ofentsibarako eta bake sozial arrifizial hau apurtzeko baldintzak egon badaude. Hori dela eta, Sorkutuko zuzendaritzak ardura handia du: mobilizazio masiboa sustatze-

koa, modu bateratuan eta programa antikapitalista batekin. Batasuna nahi dugu, bai, baina borrokatzen dutenekin, sistema bidegabe honen aurka borrokatzen dutenekin, mobilizatzen diren langile eta gazteekin, nonahikoak direla ere.

Ezker Iraultzailekook uste dugu Euskal Herriko langile klaseak eta gazteriak, estatu frantziarreko eta espainiarreko klaseko anaia-arrebekin batera, bere marka jartzeko ordua dela. Sozialismo internazionalistaren eta klase independentziazko politikaren bandera altxatu behar dugu.

- Euskal Herriaren eskubideak urratzen dituzten lege antidemokratikoak indargabetzearen alde. Euskal gazterien aurkako atxilotetarik eta kartzelatzerik ez!
- Dispersio politikaren aurka, gaixo dauden presoak berehala askatzearen eta euskal preso politikoen amnistiaren alde.
- Euskal Herriaren, Kataluniaren eta Galiziaren autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herria sozialistaren alde, Europako Federazio Sozialistaren alde!

EAJ-ren benetako aurpegia: eskuineko alderdia, aberatsen zerbitzura eta ustelkeriak zikindua



ELOY VAL

EAJk Alderdi Popularraren gobernua sostengatzeko sinaturiko akordioak hainbat zorion eta laudorio jaso ditu; horien artean euskal eta espainiar patronalak, eskuina eta Eusko Jaurlaritzan gobernu-kide duen PSE. Hain zuzen ere, PP ustelkeria kasuen putzuan hondoraino murgildurik dagoen une batean, alderdiko 800 kide baina gehiago inputaturik daudenean... EAJri esker aurrera atera ahalko du benetan konplikatua zeukan legislatura, parlamentuko ahultasunaren eta ustelkeria kasuek ematen dioten deskredituaren artean. Baina jokoa ez da hor amaitzen. EAJri esker, PSOEko gestora kolpistak oposizio gisa aurkeztu ahalko du bere

burua eta horrela, libratu egiten da berriz ere PPren salbatzaile bezala agertzetik, hain zuzen ere idazkaritza orokorrerako kanpaina bete betean daudenean.

Akordio hauek ez dira berriak. Bere garaian Arzallusek Aznar babestu zuen behar izan zuenean eta baita Zapatero ere. Kontuan hartu behar da, akordio hau ez dela azken momentuko inprobisazio huts bat izan, hilabeteak eraman dituzte hori prestatzen. EAJk argi eta garbi utzi du, Andoni Ortuzarrek esan ohi duen bezala “konplejorik gabe”, eskuineko alderdi bat dela. Argi utzi du euskal burgesiaren interesen defendatzaile leiala dela, eta honek burgesia espainarrak eta europarrak defendatzen duen sistema berbera defendatzen duela,

merkatu, interes eta lotura ekonomiko berberak tartekatuz. Euren tzat hori gailentzen da guztiaren gainetik honelako momentu klabeetan. Ikusi besterik ez dago. Ituna justifikatzeko EAJk gehien erabili duen argumentua Gobernu espainolaren egonkortasuna bermatzea izan da, Kataluniako prozesu batean eta Podemosek Rajoyren aurka zentsura mozio bat aurkeztu duenean. EAJ harro agertzen da orain, akordioa sinatu ostean, Urkullu izango delako Bruselaren hartuko duten komunitate autonomiko batetako lehen lehendakaria. Komisio Europearreko presidente den Jean-Claude Junckerrek hartuko omen du, EAJ oligarkia europarrantzat konfiantzazko alderdia dela eszenifikatzeko. Azken urtee-

tan EBko beste herrialde batzuk 27en Europa inplasionatzeko mehatxuaren protagonista izan diren arren, Estatu espainiarrak batasuneko ahulenetako bat izaten jarraitzen du.

Akordio hau ez da momentuko zerbait, urrunago doa. Eskuin espainolari gobernuan mantentzea baimentzeaz gain, hori luzatzeko aukera ere ematen dio, itun honek letra txikian legistaturako itun bat ezkututzen baitu, 2018ko aurrekontuetara zabalduko dena. Funtsean, klaseko itun bat da, kapitalismoa, bere alderdiak eta instituzioak krisirik gordinenaren erdian dauden une batean. Burgesiak egonkortasuna behar du agintzen jarraitzeko, esplotatzen, pribatizatzen eta publikoa dena lapurtzen jarraitzeko, eta funtsean hori adostu dute.

Prentsak, batez ere Euskal Herrira bideratutakoak, ikaragarri puztu ditu akordio honen kopuruak. “Akordio milioiduna Rajoyren gobernuaren sostengatzearen truke” (*El Correo*) bezalako titularrekin, PPek

prezio oso altua ordaindu duela irudikatzen saiatu dira EAJri aurpegia garbitzeko. Itunarekin euskal patronalak bere kontuak hobetuko ditu, elektrizitate merkeagoa eta salbuespen fiskal handiagoak izango ditu. Ertzaintzak bere estatusa hobetuko du eta polizia gehiago kontratatuko ditu nahiz eta jada Europa mailan biztanleko polizia kuota handiena dugun, kontuan hartuz ETak arimak behin betiko entregatu berri dituela. Kupoari eta abiadura handiko trenari dagokionean berriz, ez dago berri handirik. Azken batean, EAJk ez ditu bertan behera utzi nahi euskal Y-aren obrak, edonola jarraitu nahi ditu eta 2025erako aurreikusiriko inbertsioek hainbat ekarpen behar dituzte. Ondorioz, EAjk PP babesten jarraitu beharko du eta berdina gertatzen da gainontzeko diru partidekin eta kupoarekin. Azken aldiz orain dela 10 urte negoziatu zenean kupoa, gogora dezagun arrakasta historikoaz hitz egin zela eta egonkortasun fiskala hamarkadetarako bermatuko omen

zuela. Bada ez zuen ia urte bete ere iraun, eta hori Madrilen Zapatero eta Eusko Jaurlaritzan Patxi Lopeze zeudela. Garai hartan, kupoa ezin adostearen aitzakia egoera ekonomiko orokorra izan zen. Argi dago PPek kupoa presionatzeko karta gisa erabili izan duela eta erabiltzen jarraituko duela, eta EAJak ondo daki hori. Badaki Madrileko sindurek, bereak bezala, oso gutxi balio dutela. Ikusi besterik ez dago nola EHBilduk Gasteizko Udaleko alkatetza EAJri entregatzeko akordioa sinatu ostean, urte bat beranduago nola onartu behar izan zuen EAJak ez zuela sinatutakotik apenas ezer bete.

Euskadiko Alderdi Popularreko presidente eta Osasungintzako ministro ohia den Alfonso Alonsok, bere modura esan du: Dena aldatuko da EAJ “euskara azentu katalanarekin hitz egiten hasten bada”. Egoera argi baino argiago dago. Baina ezin bota PPri errua, euskal burgesiak bere klaseko interesak defendatzen baditu. Confebask

Jardunaldi marxistak Donostiako eta Gasteizko unibertsitatean

Ezker iraultzailetik eta Federiko Engels fundaziotik jardunaldi marxistak antolatzen ditugu urtero EHUUn. 2016-2017 ikasturtean otsailean eta martxoan burutu ditugu eta bertan Errusiako iraultzaren 100 urte urrena, Estatu Batuetako Trumpen aurkako borroka soziala, emakume langilearen askapeneko borroka, hezkuntza publikoaren aldeko borroka eta Catalunya arazo nazionalaren gaiak jorratu ditugu.

Unibertsitatean muturra sartzen ari diren enpresariak eta eskuineko politikariak, murrizketak egiteaz eta langile familietatik gazozen gazteoi ateak isteaz gain, ahal duten guztia egiten dute bertan erakusten dena ideologikoki kontrolatzeko. Indibidualismoa eta zalantza jarri ezin daitekeen sistema kapitalista izaten dira ideologia horren zutabeak. Jardunaldi hauek erresistentziako aire freskoa ematen die unibertsitateari,



ideia marxistak eta iraultzaileak ezagutzeko eta eztabaidatzeko gu ne bat sortuz. Datorren ikasturtean ere hortxe izango gara gai berriak proposatuz.



euskal patronalak garbi esan du: EAJk PPrekin akordioa sinatzea nahi zuen eta Urkulluk, beste behin, ez die hutsik egin. Bestalde, patronal kataluniarra ere, bere aldetik, itun honen sinadura erabili nahian dabil presionatzeko. Katalunian PPrekin akordioa batera iristea, kontsulta soberanistarena alde batera uztea eta PDeCATEk moztu dezan ERC eta CUPEkin nahi du; hau da, “normaltasunera” eta negozio onen garai zaharrera itzultzea. Azken batean, EAJ, hamarkadetan zehar tradizionalki burgesia kataluniarrak jokatu izan duen papera ordezkatzeko ari da; gobernu espainiarraren egonkortasuna bermatzea %3aren eta askoz gehiagoren truke; lan erreforma, moza legea, pribatizazioak eta prekarietatea besteak beste.

Akordio honek ez digu ezer onik ekarriko Euskal Herriko langile klaseari, ezta Estatu mailakoari ere. Alderantziz. Suposatuko duena murrizketa eta sakrifizio gehiago izango dira pentsionistentzat, osasun eta hezkuntza publikoan, etab. Hilabete honetan bertan bi greba orokor daude deituak EAeko irakaskuntza publiko ez unibertsitarioan EAJren murrizketa politikaren aurka. Maiatzaren 16an eta 23an

izango dira eta manifestazioak deitu dituzte M20ean hiru hiriburuetan. Gainera, mobilizazio horiek Madrilen Podemosek PP gobernutik botatzeko eta zentsura mozioa babesteko deituriko manifestazioen egun berean izango dira. Era berean, ekainaren 3 eta 6an ere mobilizazioak deitu dituzte osasungintzan, aplikatzen ari diren murrizketak basatien aurka. Horrelakoa da egoera. Gaur egun, 300.000 langile euskaldun daude hitzarmenik gabe. Horretaz gain, EAJk administrazio paralelo bat eraiki du, Administrazio sektore pribatuaren lan egiten duten 50.000 langile inguruarekin. Lan poltsetan dauden interinoek berriz nekez bizirauten dute pobrezia eta prekarietate masiboaren artean.

Eskubide demokratikoen arloan ere, akordioak ez du inolako hobekuntzarik ekarriko. Bake prozesuari dagokionean, presoak gerturatzea eta gaixo daudenak askatzea, EAJk aipatzen duen PPrekin itunduriko “estatus autonomiko berri” hori, falta diren transferentziak, erabakitze eskubidea... ezer ez da hobetuko EAJren eta PPren arteko “konfiantza erlazio” berriekin. Jada ikusi dugu, ituna sinatu eta bi egunetara, nola Rajoyren gobernuak erre-

kurritu egin duen gehiegikeria politzialen legea, 1978 eta 1999 artean segurtasun indarren aldetik tratatu txarrak jasan zituzten pertsonak erreparatzea aipatzeagatik.

Eskuin espainiarrak eta bere defendatzaile direnak, Susana Diaz eta hainbat PSOEko buruzagi barne, sinaturiko akordioa langile klasea satitzeko ere erabiltzen ari dira, lurraldeetako ezberdintasunak azpimarratuz eta EAeko eta Nafarroako kupoa suposatzen omen duen pribilegioaz hitz eginez. Argi utzi behar da, bitartekoen eta aberastasunen borroka hauetan kapitalisten gutxiengo bat izaten dela, izan han edo hemen, denaren jabe egiten dena. Langile klaseak murrizketak jasaten ditugu edonon. Ustelkeria eta bankari eta enpresarien irabazi milioidunak alde batean eta areagotzen eta zabaltzen ari den desberdintasun eta pobrezia soziala beste aldean. Hori da kapitalismoaren errealitatea. Baina egoera hori sortzen ari den ezinegon sozialak eta klaseko elkartasun sentimenduak muga nazionaletatik haratago iristen ari dira. Sistema hau eraitsi behar dugu, ez baita gizartearen gehiengo zabalarantz ongizatea eta aurrerapena eskaintzeko ere gai.

Estatu frantziarreko hauteskundeak

Alderdi Sozialistaren eta gaullisten porrota Melenchonen aurrerakada ikusgarria

Ez Macron, Ez Le Pen! Antolatu masen borroka eskuinaren aurka!

JUANA COBO

Aurrekaririk gabeko lurrikara politikoa suposatu zuten hauteskunde frantsesen lehen itzulian: sozialdemokraziaren porrotarengatik (PSF), bozken %6a soilik lortuz, eta eskuma gaullistaren atzerakadarengatik. Azken urteetan Frantziako aginte kapitalistaren sostengua izan diren bi alderdiak ez ziren bigarren itzulira pasa. Milioika gazte eta langile frantsesek argi erakutsi dute hautets ontzietan, murrizketen politikekin nazkatuta daudela.

Azkenean presidentziarako lehiara Macron eta Le Pen pasa ziren eta Macronek lortu du garaipena, bankarien eta enpresari handien hautagai kuttunak. Bozken %68,8 lortu du Le Penen %34,2ren aurrean. Kapitalistek behar zuten karanbola lortu dute, austeritate politikak jarraitu eta errepresioa areagotzeko langileen, gazteen, langabetuen eta pertsona migratzaileen aurka. Baina egoera ez da beraientzat ematen duena bezain erraza.

Egia esan, lehen itzuliko sorpresarik handiena Jean-Luc Mélenchonek eman zuen, 7.011.856 bozka lortuta eta historikoa den %19,62 batekin. Bigarren itzulian, zurian edo baliogabeko bozkek Frantzia Intsumisoaren deialdiari jarraituz %12 suposatu dute. Aurrekaririk gabeko marka da, tradizionalki kontatu ere ez zirenean egiten bozka hauek. Abstentzioa batzen badugu 16 milioi dira, 47 milioiren aurrean, bizkarra eman diotenak Le Pen eta



Macroni. Macronek inskribatuen %43,6 bozka jaso du eta horietatik %43ak Le Peni bidea mozteko egin du eta soilik %16a izan da bere programan sinetsiz bzkatu duena. Argi dago Macronek oraingoz oinarri oso ahula duela gobernatzeko eta aurrean dituen urteak oso ezegonkorak izango direla.

Marine Le Pen ultra eskuindarra aldiz, oso urrun geratu da bi itzulietan zeuden aurreikuspenetatik. Lehen itzulian inkestek garaile ematen zuten eta 7.658.990 bozketan geratu zen eta bigarrenetan 10,6 milioi bozka lortu ditu, espero zuen %40ra ere iritsi gabe.

François Fillon, eskuma gaullistaren hautagaia, hirugarren tokian gelditu zen lehen itzulian 7.162.632 bozkekin (%19,94). 2012an baino 2,6 milioi bozka gutxiago lortu zituen, eta 2007an baino 4,2 milioi gutxiago. Hauteskunde hauen aurretik

eskuin tradizionala krisi sakonean bazegoen, ustelkeria eskandalu askok zikinduta —horien barnean Fillon bera egonik—, emaitza hauek zatiketa berriak eragingo dituzte.

Alderdi Sozialistaren porrot historikoa

Alderdi Sozialista Frantsesarentzat ere etapa berri bat irekitzen da. Bere hautagaia, Benoit Hamon, bostgarren izan zen 2.268.838 boto bakarrik eskuratuz (%6,35). Hollandek 2012an lortutakoa baino 8 milioi gutxiago! Sozialdemokrazia frantsesak jasotako porrot historiko hau PASOK greziarrak jasadakoarekin bakarrik alderatu daiteke. Bi kasuak, azken hamarkadan eman duten ibilbidearen ondorio zuzena dira: buruzagitza kapitalistekin fusionatzea, mirabekeria austeritate politikak aplikatzerakoan

eta klase dominatzailearen imperialismoaren defentsa sutsua. Hollanden gobernuak azken garaian aurrera eramandako errepresio legeek eta gizartea militarizatzeko hainbat neurrik krisi hori indartu besterik ez dute egin.

Emaitza hauek ekaineko hauteskundeetan errepikatuko balira, Alderdi Sozialista Frantsesaren historiako emaitzarik txarrenak izango lirake parlamentuan. Edozein kasutan alderdia erabat zatituta dago. Valls eta Hollandek Macron babesten ari dira. Valls bera aurkeztu da ekaineko hauteskunde legislatiboetan Macronen alderdiko buru izateko.

Fronte Nazionale bigarren itzulian sartu da baina helburuak lortu gabe

Hauteskunde aurreko asteetan argitaratutako inkesta guztiek Le Pen ematen zuten garaile. Ez zioten bozken %25a baino gutxiago ematen baina azkenean soilik 7,6 milioi lortu zituen, %21,4a; 2012an

baino 1,2 milioi gehiago. Bigarren itzulian gehiago lortu baditu ere, emaitza hauek Fronte Nazionalaren mugak agerian uzten dituzte.

Le Pen Trumpen ereduaren oinarritu zen hauteskunde kanpainarako: etorkinen kontra sakon ari zuen, bere burua frantziar “ahaztuen” defendatzaile bezala agertuz eta argi utziz “anti-establishmentaren” hautagai bakarra zela. Baina hauteskunde amerikarretan ez bezala, kasu honetan bazegoen hautagai bat ezkerrean: Melenchon, austeritatearen eta murrizketen aurkako programa defendatuz.

Fronte Nazionalaren igoera azken urte hauetan ez da soilik gertatu botere ekonomikoa galdu duten gizarteko geruza ertainetan. Babes gehien landa eremuko guzietan mantentzen jarraitzen duen arren, langabeziara kondenatutako gazte eta langileen hainbat sektore erakarri ditu diskurtso demagogikoaren eta atzerakoiaren bidez. Fronte Nazionalaren gorakada, sistema kapitalistaren krisiaren aurrean sozialdemokraziak eta eskuin

tradizionalak emandako porrotaren emaitza da. Baina horren guztiaren gainetik, milioika langilek badakite Le Pen patronalaren beste tresna bat dela, langile mugimendua eta bere eskubideak zapaltzeko.

Emmanuel Macron finantza altuen hautagaia

Emmanuel Macron bilakatu da dudarik gabe hautagairik sendoena burgesiarentzat. Komunikabide kapitalistengatik bultzatua izan da Frantziako “salbatzaile” bezala. Hollandekin ekonomia ministro izan zen Macronek, ardura handia izan zuen gobernu horren murrizketa politiken diseinuan. Independente bezala egonik, Alderdi Sozialistako gobernu utzi zuenean, bere alderdia sortu zuen hauteskunde presidentzialetarako: En Marche! Kontzentratuta dagoen europar bat bezala marrazten dute, ustelkeriatik salbu dagoena eta “politika zaharrei” lotu gabea. Baina hitzontzikeria “zentrista” hauen atzean austeritatearen, murrizketen eta pri-



batizazio masiboen aldeko kapital finantzarioa dago.

Ez da kasualitatea, eskuin tradizionaletik hasi eta PSFra arte, agintarekin eta ordenarekin errespetuz jokatzeko duen orok Macronen aldeko bozka eskatu izana. Beren jarrerara “dei abertzale” gisa mozorrotu dute, ultras eskuin anti-europearra garaitzeko.

Mélenchon aurrerakada historikoa

Ezkerrarentzat garrantzitsuena Jean-Luc Mélenchon aurrerakada historikoa izan da. “Frantzia Intsumisioa” alderdiarekin 7.011.856 boto lortu zituen lehen itzulian (%19,62), 2012an baino 3 milioi gehiago. Fillonek 115.000 gehiago bakarrik lortu zituen eta Le Penek 550.000. Bigarren itzulira pasatzeko zorian egon da eta 25 urtez azpikoen artean hautagairik bozkatuena izan da. Gainera lehena izan da Frantziako 10 hiri garrantzitsuenetatik 4etan: Marseilla —Frantziako bigarren hiria—, Tolosa, Lille eta Montpellier. Beste hiruetan bigarren tokian gelditu da: Burdeos, Nantes eta Estrasburgo. Aurrerakada historiko honek 2015ean SYRIZAren, Estatu Batuetan Sandersekin edo Estatu Espainiarrean Podemosekin gertatu diren fenomeno berdinei erantzuten die.

Komunikabideak etengabe ari dira errepikatzen gizarte frantsearen ustezko eskuinerako biraketa eta ezkerraren krisia. Baina apirilak 23ko eta maiatzaren 7ko emaitzek irudi oso bestelakoa ematen zuten: gizartean polarizazio poli-



tiko indartsua ematen ari da, sistema bipartidista krisian dago, eta milioika gazte eta langile ezkerre-
ra biratzen ari dira. Horren adibide garbia dira PSFtik ezkerre-
ra sortu diren erakundeak batuz (Frantzia Intsumisioa, Alderdi Antikapitalista Berria eta Lutte Ouvriere) Fronte Nazionalaren bozka kopuru berdinak lortu zituztela lehen itzulian.

Antolatutako mobilizazioa eskuinari eta ultra eskuinari aurre egiteko

Bigarren itzuli honetan ulertzekoa da hainbat langile sektoreek Macron-i bozka ematea. Borrokatzen duen ezkerre-
ra ordea ezin dio babesa eman sozialdemokrazia eta eskuinak aplikatzen dituzten erreze-
ta berdinak erabiltzen dituen hautagai bati. Hain zuzen ere hori izan da Fronte Nazionala aurrera egite-
ra eraman duena. Horrela ez da gelditzen ultra eskuina!

Hurrengo ekaineko hauteskundeetarako toki ezin egokiagoan dago Frantzia Intsumisioa. 450.000 pertsona baino gehiagok eman zuten izena internet bidez, erreferente bilakatzeko botere paregabea ematen diona. Milakak egin dute bat boto zuria eta baliogabea emateko deialdiarekin bigarren itzulian.

Orain zeregin garrantzitsuena potentzial hori guztia antolatzean datza. Frantzia Intsumisioa gazteen eta langileen alderdi gisa antolatu behar da kapitalismoarekin apurtuko duen programa sozialista baten baitan. Erresistentzia prestatu behar da eskuinaren eta ultra eskuinaren aurka, bai kaleetan eta baita ekaineko hurrengo hauteskundeetan ere. Borroka indartu behar da mobilizazio masiboak antolatuz hirietan, auzoetan, enpresetan eta ikastetxeetan, eta hauei jarraipena emanez Greba Orokor handi bat prestatuz.

Tolosako Txoznetan

Tolosako txozna batzordean lanean ari gara San Juanetako txoznagunea antolatzen. Beste eragile batzuekin batera, Ernai, Ikasle Abertzaleak, Gazte Asanblada, Emakumeen Taldea... Tolosako Ihauterian eta San Juan festetan txozna gunea jartzen parte hartzen dugu Ezker Iraultzaileko kideak. Honela, Euskal Herriko hainbat herrietan bezala, espazio alternatibo bat eskeintzen dugu eta borroka finantzazko eta autogestioatzeko, ahalik eta indartsuen jarraitzeko xoxak ateratzen ditugu.

**Zatoz San Juanetara Tolosako txoznagunera!
Babestu langile eta gazteen borroka!**

Venezuela egoera kritikoan

Kontrairaultzaren aurka neurri sozialistekin borrokatu behar dugu, ez kapitalistekin!



IZQUIERDA REVOLUCIONARIA Venezuela

Venezuelako egoera puntu kritikora iritsi da. Manifestazioak eta kontra-manifestazioak bata besteari atzetik igarotzen dira, gobernuak zein eskuineko oposizioak (MUD) deiturik. Propaganda kapitalista benetako leherketa sozial gisa aurkeztzen saiatzen da egoera, hori bai, kontu handiz ezkutatu banda faxistek burutzen dituzten ekintza bortitzak. Edozein kasutan ere, krisi ekonomiko deskontrolatuak sortzen duen deskontentua eskuinari bere agitazioa egiteko ateak zabaltzen ari zaio. Zein irtenbide du kale itxi honek? Zein neurri ari da hartzen Maduroren gobernua? Nola egin au-

rre kontrairaultzari eta nola habiatu benetan sozialismora?

Azken tentsio gorakada Justizia Auzitegi Gorenak Martxoaren 30ean, Asanblea Nazionalaren funtzioak ezabatzeko erabakia aurkeztu zuenetik eman da. 2015eko abenduko 6eko hauteskundeetatik parlamentu hori MUDek kontrolatzen du. Azkenik, gobernuan dagoen bloke barruan dauden zatiketak agerian utziz (Estatu aparatua, Gobernua eta armada), Nicolas Maduro presidenteak funtzioak berrituzli zizkion ANri. Orain MUD zatiketa horiek erabiltzen ari da, bere aldekoak masiboki kalera ateratzeko.

Erabaki honek eragin duen krisia aprobetxatuz, Rajoy, Felipe Gonzalez, OEAKo presidentea eta

burgesiaren eta inperialismoaren propagandistak, MUDeko erreakzionarioak demokrata gisa aurkeztzen saiatzen dira eta negar malko ustelak isurtzen dituzte Venezuelako “askatasun faltaren” izenean. Baina horiek izan ziren hain zuzen ere 2002ko kolpea babestu zuten berberak, hain zuzen ere Chavez espetxeratu eta eskubide konstituzionalak ezabatu zituen kolpea. Orain dela urte mordo, 1989an, burgesia internazionalako propagandista horiek *Caracazoaren* errepresioa babestu zuten. Gobernuak tiroka erreprimitu zituen aplikatzen ari ziren austeritate planaren aurka protestatza kalera irten ziren milaka eta milaka pertsona, 3.000 pertsona erailaz. Egun Asanblea Naziona-



la kontrolatzen duten alderdietako asko ziren garai hartako gobernuak.

Neurri kapitalistek eta bonapartistek erreakzioa indartzen dute

MUDEko oinarriak desmobilizaturik eta etsita zeuden 2016ean ez zutelako lortu Maduroren aurkako erreferendum errebokatorioa aurrera ateratzea eta beren buruzagiak gobernuarekin negoziatzaren ikus-ten baitzituzten. Baina ANren funtzioak ezabatzeko erabakiak, eta horren harira gobernuak erakutsitako zatiketek eta ahultasunak, milaka pertsonak kaleak hartzea eragin du, presidentearen dimisioa eta hauteskundeak egitea eskatuz.

Oposizioako mobilizazioak oso masiboak izan arren, lanuzteko deialdia ez da babes argirik edukitzen ari enpresarien artean (2016ko urrian gertatu zen bezala). Momentuz, MUDEko buruzagiek errebokatorioarekin zuten arazo berbera daukate: ez dute kupula militarrean nahikoa babes lortzen Maduroren dimisioa edo kargu-betzea behartzeko. Baina egoera oso aldakorra da oraintxe bertan. Madu-

roren gobernuak ez du langile klasean eta herrian bilatzen babes. Ez ditu neurri sozialistak aplikatzen berehalako beharrak asetzeko eta kontrairaultzaren aurka ekiteko; orain arte Estatuaren kontrola goitik mantentzen saiatzen ari dira, kapitalismoaren mugak errespetatuz eta, praktikan, prozesu iraultzaileak konkistaturiko aurrerapen sozial askori buelta emanez.

Burgesia eta inperialismoa eskuinak Asanblea Nazionalen duen kontrola erabiltzen ari dira boterera iristeko. Baina ikuspuntu marxista batetik, AN disolbatzea boterea Auzitegi Gorenaren eskuetan kontzentratzeko ez da neurri sozialistak eta iraultzaileak aplikatzea. Ez du bultzatzen langile masen kontrol eta parte hartze demokratikoa. Ez du balio Estatua eraldatzeko, estatu burgesa izaten jarraitzen baitu.

Eskuinak Asanblea Nazionala irabazi zuenean, marxistek masa iraultzaileen mobilizazioa defendatu genuen, kapitalisten boterearekin amaitzeko eta benetako parlamentu iraultzaile bat eratzeke. Nola? Asanblada Iraultzaile bat ezarri, lantegietan, landan eta kuarteletan demokratikoki hautatuak eta kar-

guz kenduak izan daitezkeen delegatuek osatuko luketena. Horrekin batera, benetako programa sozialista aurrea eramatean datza gakoa, bai burgesiaren aurka eta baita burokrazia “bolibariarraren” aurka ere, ahoz sozialista dela esan baina gero negozio milionarioak tartekatzen dituen kapitalistekin, iraultzaren konkistak ezabatzen lagunduaz. Milaka militante chavistek hauteskundeetako porrota burokraziaren errua zela ondorioztatu zuten, eta bat bateko asanbladetan ezkerre- ra biratzea eskatzen zuten, langile eta herri boterea garatzeko. Baina ezkerre beharrean, gobernuak eskuinera biratu zuen. Bere helburua jada ez da sozialismoa eraikitzea, akordioak bilatzea baizik inperialista txinatarrekin eta errusiarrekin, eta baita Venezuelako burgesiaren sektoreekin ere. Inperialismoaren sektore bat ere konbentzituko dutela uste dute, kapitalismo Venezuelarraren krisia MUD baino hobe kudeatzeko gai direla erakutsi nahian. Orain dela gutxi, Venezuelako estatuak CITGO gasolindegien katearen bitartez (PDVSAren jabetza dena), Donald Trumpen kanpainara ekarpenak egin zituela jakin da, horrek Washingtonetik harremanak hobetuko zituelakoan.

Atzerapausorik ez langileen eta herriaren eskubideetan! Iraultzaileen batasuna kapitalisten eta burokraten aurka!

Burgesiarekin akordio hori lortzeko, gobernutik etengabeko prezio igorak onartu dira langileen eros ahalmenean galerak eraginez; Ikuskaritzak eta Lan Ministerioak langileen aurka burutzern dituen ekintzak babestu dituzte, eta murrizketak egin dituzte enpresa publikoetan eta pribatuetan. Garaiz eta txukun ordaintzen diete bankuei eta multinazionalari kanpo zorraren dirua, baina dirua falta dela diote elikagaiak eskuratze moduko prezioetan banatzeko. Mehatze Arkua gi-

sako proiektuak onartzen ari dira. Proiektu honek, Venezuelako lurren %12a irekitzen die multinazional inperialistei lehen gai mineralak nahi duten bezala esplotatu ditzaten. Horrek guztiak, iraultzaren oinarri sozialaren zati handi bat etsipenera eramateko bakarrik balio izan du. Gobernuak deituriko manifestazioetako parte hartzea eta giroa, jada urrun geratzen da Chavezen garaiko indar eta ilusioarekin, baita orain dela 2 urtekoekin alderatuta ere.

Marxista gisa MUDen eta maila internazionalako eskuinaren demagogia kontrairaultzailearen aurka gaude. Era berean ordea, akats larria izango litzateke ez ikustea, egun Venezuelako gobernuak aplikatzen ari den politikak sozialismoaren kontrako norabidean doazela eta Chavezek defendatutakotik

ere urruntzen direla. Azken urte eta erdian, gobernuak izaera bonapartista duten neurriak hartu ditu. Neurri horiek ez ditu kritikatzen Venezuelako burgesiak eta burgesia internazionalak, ezkerreko sektore borrokalaria kolpatzen baitituzte eta beren estrategia indartz en baitute objektiboki. Kontseilu komunaletako eta sindikatu ezberdinetako hauteskundeak gelditu egin dira. CLAPak (elikagaiak prezio eskuragarrietan banatzen dituzten organismoak) ez ziren sortu auzoetako eta lantokietako asanbladen bitartez, burokratikoki baizik, karguak nahierara hautatuz. Hor ere jada zabaldu dira ustelkeria, arbitrariotasuna eta beharra duten sektore asko kanporatzen dituzten kasuak. Alderdi politikoak berriro legeztatzea behartzen duen araudiak berriz, kanpoan utzi di-

tzake Alderdi Komunista eta beste indar chavista kritiko batzuk. Geroz eta joera gehiago dago ezkerreko edozein kritika desprestigiatzeko eta erreprimitzeko.

Prozesu iraultzailearen porrota burgesiaren eta inperialismoaren eskutik edota sozialista dela dioen burokraziatik etor daiteke, hori praktikan estatu-kapitalismoa defendatzen ari baita iraultzaren konkistak ezabatuz. Porrot tragiko bat saihestu dezakeen bakarra iraultzaileen batasuna da, benetako programa sozialista baten alde aldarrikapenak eta langile borrokak batuko dituen, kalean mobilizatuz bizi baldintzen aurkako edozein atzerapausoren aurka (soldadak, eskubideak, etab.); botere ekonomikoa eta politikoa kenduz kapitalisten eta burokraten eskuetatik, langileei eta herriari pasatzeko.



Erreferenduma Turkian

Iruzurrak eta errepresioak ez diote garaipen garbirik eman Erdoganari



MIGUEL ÁNGEL DOMINGO

Apirilaren 16an erreferenduma egin zen Turkian, Erdoganek proposatutako erreforma konstituzionalari buruz. Helburua benetako diktadura bat ezartzea zen, “presidentetza exekutiboa” eufemismoarekin estalita. Erreforma horren bidez, Erdoganek gobernuaren, estatu aparatua-ren eta judikaturaren zati handienaren funtzio guztien gaineko botere ia osoa eskuratuko luke, eta bere agintaldia 2029ra luza liteke. Bozketaren emaitzek agerian uzten ditu Erdoganek duen ustezko babesa eta diktadura garaitzeko dauden aukerak.

Datu ofizialen arabera, baietzak %51,4 eskuratu zuen, eta parte hartzea %83,3koa izan zen. Emaitzak

benetakoak izanda ere, porrot bezala har daiteke edo, asko jota, garaipen pirrikotzat. Halere, hauteskunde egunean Hauteskunde Batzorde Nagusiak adierazi zuen zigilu ofizialik ez zuten boto-papera onartuko zituela kontaketa egiteko. Herriaren Alderdi Errepublikanoaren (CHP, kemalistak) eta Herrien Alderdi Demokratikoaren (HDP, ezker kurdia) arabera, bi milioi eta erdi boto zeuden zigilu gabe. Zifra garrantzitsua da, kontua hartzen badugu baietzaren eta ezetzaren arteko aldea 1.100.000koa izan dela. Horri gehitu behar zaio milioi erdi kurduk ezin izan zutela izenik eman bozkatu ahal izateko, Erdoganek Kurdistan turkiarrean 2015eko udan piztutako gerra de-

la eta, beren herrietatik ihes egin dutelako.

Huts-hutsean, datu horiek eskandalagarriak badira ere, hauteskunde kanpaina nolakoa izan zen ikusi besterik ez dago. Benetako iruzur prebentiboa izan zen. Ezetzaren alde manifestatzen zen edonor terroristatzat hartzen zuten. Kanpaina 2016ko uztailaz geroztik dagoen larrialdi egoeran egin zen: kolpearen ondoren Erdoganek abiatutako garbiketaren ondorioz, 120.000 funtzionario kaleratu, suspenditu edo kartzelan sartu ditu, 28 telebista kate, 66 egunkari, 19 aldizkari, 36 irrati, 26 argitaletxe eta 5 albiste agentzia itxi ditu eta komunikabide bateko 150 langile sartu ditu kartzelan, 81 kazetari barne (Txinakoak,

Egiptokoak, Irangoak, Errusiakoa eta Siriakoak batera baino gehiago). HDP alderdia jazarpen ikaragarria jasaten ari da azken urte eta erdian: alderdiko 12 diputatu, milaka militante eta eskualdeetako agintari sartu ditu kartzelan eta alderdiaren esku zeuden udalak botere gabe utzi eta Barne Ministeriooko funtzionarioek hartu dute kontrola.

Ezetzaren garaipena hiri handietan

Iruzurra gorabehera, Erdoganen ahultasuna nabarmen ikusten da hauteskundeetako emaitzak aurrekoekin konparatzen baditugu: 2015eko azaroko hauteskunde legislatiboetan, botoen %60 lortu zuten erreferendumean baietzaren alde zeuden AKP (Erdogan) eta MHP (ultraeskuina) alderdiek. Ahultasuna are argiagoa da hirietako eta probintzietako emaitzak begiratzen baditugu. Ezetzak irabazten du biztanle gehien dituzten eskualdeetatik lautan. Hiriburuetan, Istanbulen eta Ankararen, Erdogan garaitua izan da, lehen aldiz 1994az geroztik. Esmirna da hirugarren hiri handiena, eta bertan %69 lortu du ezetzak;

Adana laugarren hiri handienean eta Antalya hiri turistikoan %60 lortu du ezetzak. Hiri kurduetan, errepresioa eta gerra egon arren, ezetzak nabarmen irabazi du: Diyarbakir hiriburu kurduan %70, Cizre-n %80, Nusaybin-en, %79, Silvan-en, %77, Silopin-en, %75, etab.

Eredugarria izan da masek erreferendumean eman duten erantzuna. Errepresioaren gainetik, azken hilabeteetan mobilizatu diren sektoreek ezetzaren aldeko botoa eman dute: langileak, ikasleak, irakasleak, emakumearen zapalkuntzaren aurkako mugimenduak, mugimendu kurduak... Prentsa burgesak etengabe esaten du “ezinezkoa dela ezkerreko erantzun bateratua ematea”, baina guztiz kontrakoa ikusi dugu.

Hauteskunde gauean bertan, iruzurraren aurkako protesta ekin-tzak izan ziren. Milaka eta milaka manifestari atera ziren kalera Turkiako hiri nagusietan, eta Erdogani eman behar zaion erantzunaren eredu bilakatu ziren: beharrezkoa da masen mugimendua eraikitzea, larrialdi egoerari eta diktadura finkatzeko asmoari amaiera emateko. Proposamen hori erabat lotua dago 2013an Taksim plazan sortu

zen mugimenduarekin eta, berriki, AEBn Trumpek irabazi duela eta piztutako klase arteko borrokaren leherketarekin. Ankarako pankartetan irakur zitekeen bezala, “Ezetza hasi besterik ez da egin”.

Inflexio puntu bakoitzean, Bona parte izateko hautagai on bezala, Erdoganek bere posizioa indartzeko eta egonkortasun kapitalista lortzeko ahaleginak egin ditu, baina, horrela, gasolina gehiago bota dio suari eta kontraesan, haustura eta tentsio sozial gehiago eragin ditu. Posible da orain modu berean jokatzea, are gehiago AKPn eta MHPn erditzen ari diren zatiketan ikusirik. Momentuz, larrialdi egoera luzatu du.

HDPk esan du hauteskundeak inpuernatuko dituela, nahiz eta analistak guztiak ados dauden Erdoganek ez duela atzea egingo. HDPk ardura historikoa dauka egoera honetan, eta baldintza guztiak daude oposizioko mugimendua antolatu eta indartzeko. Erdoganen manio-bra guztiak onartu dituzten erakunde burgesek irtenbide bat aurkituko dutela pentsatzea barkaezina da. Edonola ere, ikusi dugun bezala, Turkiako langile eta gazte mugimenduak borrokan jarraituko du.



Errusiako Iraultza eta auzi nazionala

Izan ote daiteke aske beste herri bat zapaltzen duen herria? Ez. Errusiako herritarren askatasunak zapalkuntza horren aurka borrokatzea eskatzen du. Nazio zapalduetako mugimenduaren errepresioaren historia luzeak eta 'goi-mailako' klaseak zapalkuntza horren alde egindako propagandak oztopo handiak sortu ditu herri errusiarraren askatasuna lortzeko bidean, aurreiritzietan, etab.

Auzi nazional orotan, burgesiak pribilegioak edo abantaila bereziak nahi ditu bere nazioarentzat; hain zuzen ere, horri deitzen dio 'praktiko' izatea. Langile klasea era guztietako pribilegio guztien aurka dago; bereizkeria guztien aurka dago. 'Praktikotasuna' eskatzea, burgesiaren morrontzan erortzea esan nahi du, oportunismoan erortzea.

Nazioen autodeterminazio eskubidearen arazoaren baitan, gainerakoetan bezala, interesatzen zaiguna nazioen barruko langileen autodeterminazioa da.

V. I. Lenin, Nazioen autodeterminaziorako eskubidea

JORDI ROSICH

Erregimen tsaristak errepresio basatiarekin zapaltzen zituen errusiar inperioko nazionalitateak. 1897ko erroldaren arabera —erregimen inperialak egindako azkena— 129 milioi biztanletik, 55,6 milioi ziren errusiarak, %43a. Halere, errusia, erlijio ortodoxo ofiziala eta administrazio tsarista inposatzen zitzaien gainerako %57ari. Hainbat ziren nazionalitate eta talde etnikoak: ukrainarrak, bielorrusiarak, poloniarak, finlandiarrak, lituaniarrak, letoniarak, judutarrak, Kaukasoko herriak, herri turko-tartariarrak, moldaviarrak, alemanak, etab. Bere domeinua finkatzeko, tsarismoak progromoak baliatzen zituen: talde etniko baten aurkako

lintxamendua. Era berean, herri osoak suntsitzen zituen, batez ere Kaukaso inguruan.

Estatu errusiarraren sorrera

Errusiaren izaera nazio aniztuna zen arren, herrien kartzela zen, Leninek azaldu zuen bezala; eta garapen historiko berezi baten emaitza izan zen. Europako mendebaldean, XIX. mendean, kapitalismo industrial oso garaturik bazegoen ere, Errusian jopuen morrontza ez zen indargabetu 1861. urtera arte. Frantzian, Alemanian, Italian eta, oro har, European estatu nazionalen sorrera kapitalismoaren ekoi-zen moduen garapenarekin eta merkantzien zirkulazioaren areagotzearekin batera izan zen, ger-

takari horiek kulturaren eta hizkuntzen homogeneousazioa eragin baitzuten. Aitzitik, Errusian XVI. mendetik XIX.era inperio tsaristak izandako goraldia herrialdeen konkistei eta horietan morrontza erregimena ezartzeari zor zitzaion. Lurralde horiek —bertakoa desalajatu ondoren— lur-jabeen, funtzionarioen, merkatarien, errusiar nekazari aberatsen eta, jakina, tsararren artean banatzen zituzten. Beraz, inperioaren hedatzea estuki lotua zegoen zapalkuntzarekin eta konkistatutako herrien umiliazioarekin. Herrialde gehienak nekazariak ziren, eta maiz funtzionarioek, irakasleek, apaizek eta lurjabeek —guztiak erregimen tsaristari lotuak— ez zuten bertako hizkuntza hitz egiten eta ulertzen; eta zi-

tuzten maila ekonomikoa, ohiturak eta bizitza soziala erabat ezberdina zen bertakoen aldean.

Errusiak 1914ko gerra inperialistan parte hartu izana gogortu egin zuen zapalkuntza nazionala: eskubide demokratikoen aurkako errepresio masiboa, kartzelaratzeak, ekintzaileen hilketak, bertako herritarren kanporatzeak eta prentsa nazionalen debekuak areagotu egin ziren. Baldintza horietan, saihestezina izan zen tsarismoaren gainbehera eta iraultza piztea eta horrekin batera herri zapalduen aldarrikapen demokratiko-nazionalak agertzea, gainerako aldarrikapen demokratiko eta sozialekin batera. Prozesu hori agerian geratu zen 1905eko iraultzan, eta are gehiago 1917koan.

Auzi nazionala eta Otsaileko Iraultza

Otsaileko Iraultzak tsarismoaren bukaera ekarri zuen, eta boterea, denbora batez, kadete alderdiak ordezkatzeko burgesia errusiarraren eta behin-behineko gobernuaren esku geratu zen. Berehala, ikusi zen burgesia ez zela gai kontu garrantzitsuei —gerra, lurra eta auzi nazionala— erantzun egoki bat emateko.

Kadeteak autodeterminazio eskubidearen eta antzeko eskubideen aurka agertu ziren, eta hori garbi utzi zuten 1917ko maiatzean egin zuten kongresuan. Lehen tala Finlandian izan zuten; behin-behineko gobernuak armekin disolbatu zuen Sejm, bertako parlamentua. Ukrainari dagokionez, antzeko jarrera po-

litikoa izan zuen, eta aldarrikapen apalenak ere ukatu zituzten kadeteek. Polonian herrialdearen independentzia onartu zuten, baina alemaniarrek okupatu zutenean; beraz, ez zen inolako kontzesiorik izan.

Burgesia Otsaileko Iraultzaren arroparekin saiatu zen mozorrotzen beren politika atzerakoia. Hori horrela izanik, alde batetik Errusiak gerran parte hartzea defendatzen zuen "iraultza etsai alemaniarrengandik defendatzeko"; baina, bestetik, esaten zuen beharrezkoa zela Errusiaren batasuna defendatzea "iraultzaren batasuna mantentzeko". Masen bizi baldintzetan eta eskubideetan hobekuntzarik ekar zezakeen erreforma oro onartzea gerorako uzten zuten, "errealismoaren", "demokraziaren" eta "iraultzaren" izenean.





Eseristen eta mentxebikeen, hau da, orduko sozialdemokraten, politika, funtsean, ez zen aldentzen burgesiarenetik. Auzi nazionalari zegokionez, herri zapalduen egoera jasagarriagoa izan zedin bermatzen zuten, baina, beti ere, estatu errusiarraren barnean. Horrela, praktikan, nazionalitate zapaltzailearen aldean jartzzen ziren, eta nazionalismo errusiarraren erropa janzen zuten, itxura demokratikoarekin.

Programa boltxebikea

Boltxebikeen posizioa bestelakoa izan zen. “Leninek —zioen Trotskyk*— aspalditik aurreikusiak zituen Errusian sortuko ziren mugimendu nazional zentrifugoak, eta urte luzez egin zuen borroka —batez ere Rosa Luxemburgen aurka— alderdiaren programaren 9. puntua dela eta, zeinak nazioak burujabe izateko, hau da, estatutik bereizteko eskubidea bermatzen baitzuen. Hori horrela, alderdi boltxebikea ez zen konprometitzen, inondik inora, propaganda separatista egitera; hain zuzen ere, zapalkuntza nazional ororen, baita nazionalitate bat estatu baten barruan bortxaz mantentzearen aurka gogorki borrokatzeko konpromisoa hartu zuen. Bide

horri esker lortu zuten langile errusiarrek, pixkana pixkana, nazionalitate zapalduetako langileen babesa”.

Boltxebikeek batez ere hiriko langileen babesa izan zuten. Errusiak zuen egitura soziala zela eta, auzi nazionala, neurri handi batean, nekazarien auzia zen, eta kasu askotan luraren jabetzari loturik zegoen. Iraultza sozialistak garaipena lor zezan, beharrezkoa zen nekazarien babesa lortzea, herritarren gehiengo baitzen, edo behintzat neutralak izatea lortu behar zen. Mendeetako zapalkuntzaren ostean, oso normala zen nazionalitate zapalduetako masak ez egotea eroso metro-politik zetorrenarekin.

Nazionalitate zapalduen autodeterminazio eskubidea defendaturik, boltxebikeek, alde batetik, Errusia handiko nazionalismoaren kontrako jarreraren hezten zituzten nazionalitate zapalduetako masak; baina, bestalde, oso garbi uzten zieten errusiar langileek ez zutela inolako interesik zapalkuntza nazionalen, eta nazionalitate horiek Estatu errusiarraren menpe mantentzean.

Politika hori langile klasearen eta nekazarien batasun irmoaren defentsarekin konbinatzen zen, etsai berbera baitzuten: burgesia eta lur-jabe handiak. Hori dela eta,

Leninek eta boltxebikeek nazionalitateek estatuarekin izango zuke ten loturan malguak izan arren eta, beraz, autodeterminazio eskubidea defendatu arren, irmotasun berberaz defendatzen zuten alderdi zentralizatua eta eduki nazionalistarekin gabeko alderdia. Alderdi iraultzaileak ez du etorkizuneko langile estatuaren prototipoa izan behar, hori lortzeko tresna eraginkorra baizik.

Nazionalitate zapalduetako klase agintariaren papera

Koadro boltxebikeak nazio gutxituenganako errespetu eta sentsibilitate handiengan hezita zeuden, eta gogor borrokatu zuten zapalkuntza nazional ororen eta Errusia Handiaren chauvinismoaren aurka. Halere, jarrera horrek ez zuen inolako itxaropenik pizten nazionalitate zapalduetako klase dominatzaileak joka zezakeen paper aurrerakoiarekiko. Oinarrian, alde handia zegoen nazionalitate zapalduetako sektore pribilegiatuaren eta masa zapalduen nazionalismoaren artean.

Hasiera batean, errusifikatu gabeko nazionalitate zapalduetako kapa sozial aberastuek —eskolako irakasleak, merkataria eta funtzionario txikiak— hartu zuten mugimendu nazionalen zuzendaritza, eta beren programa soziala errusiar mentxebikeen eta eseristen antzekoa zen: iraultza demokrazia burgesaren mugen barruan mantendu nahi zuten. Halere, askatasun demokratiko eta nazionalak lortzea, lurra egoki banatzea eta gerra bukatzea langile klaseari zegokion, ez errusiar burgesiari, hau estuki loturik baitzegoen lur-jabe handien interesekin eta inperialismoaren menpe baitzegoen. Era berean, nazionalitate zapalduetako burgesia ahula zen, eta ez zen gai paper beregaina jokatzeko. Baltikoko probintzietako burgesia tsarraren defendatzaile tinkoa izan zen, eta bat-batean separatismoaren defendatzaile sutsu bilakatu ziren, Errusiako bol-

txebikeei aurre egiteko. Fenomeno hori ohikoa izan zen periferiako burgesiaren artean. Gauza bera gertatu zuen kosakoen goi-nagusien artean ere, zentralismo tsaristaren zutabe izan ziren arren, hilabete gutxitan, nagusi musulmanekin batera, federazio bat egitearen alde jarri ziren, herritarrak boltxebikeen eraginekin isolatzeko. Herritarren sentimendu nazionalak erabiltzen zituzten beren pribilegioak babesteko.

Masa zapalduen nazionalismoak bestelako helburu batzuk zituen: bere hizkuntza ikasi eta eskolan ikasleko eskubidea, ez-jakintasunaren eta pobreziaaren aurkako borroka, lur-jabe handien eta burokrazia tsaristaren zapalkuntzaren aurkako borroka... Esate baterako, Letonian lur-jabe handien eta nekazarien arteko antagonismoa jatorri alemaniarra zuen gutxiengo zapaltzailearen eta gehiengo letoniarraren arteko gatazka ere bazen. Trotskyk masen nazionalismo hori “heldu gabeko boltxebismoaren oskol-tzat” hartu zuen.

Mugimendu nazionalak ez ziren kolpean sartu iraultza prozesuan; zenbait etapa egon ziren eta eskualdeen arabera ezberdina izan zen. Trotskyk esan zuenez, “langile, nekazari eta soldadu ukrainar, bielorrusiar eta tartariarrek Krenskyrenganako, gerrarenganako

eta errusifikazioarenganako zuten gorrotoagatik, langile iraultzaren aliatu bilakatu ziren, beren agintari kontziliatzaileen gaineretik. Boltxebikeen iraultza objektiboki babestu ondoren, boltxebismoaren bidea hartu zuten subjektiboki. Finlandian, Letonian, Estonian eta, neurri apalagoan, Ukrainan mugimendu nazionalaren bereizketak halako garrantzia zuen non atzerriko tropek bakarrik eragotzi zezaketen iraultzaren garaipena. Ekialde asiarrean esnatze nazionalak izaera primitiboagoa izan zuen eta, ondorioz, gradualki eta atzerapenez gidatu zuten langile klaseak, behin boterea hartu ondoren. Prozesu konplexu eta kontraesankor hori guztia bere osotasunean hartzen badugu, ondorioan argia da: uhar nazionala eta nekazarien uharra Urriko Iraultzaren ibaian isurtzen ziren.

Klaseko interesak eta auzi nazionala

Boltxebikeek jakin zuten auzi nazionalaren hondoa ikusten, eta horrek aukera eman zien bere izaera iraultzailea baliatzeko. Horretarako ezin zitekeen jarrera eskematiko eta estua izan, eta ezin zitekeen errusiar nazionalismoaren eta nazionalitate zapalduetako burgesiaren nazionalismoaren eraginpean ero-

ri. Tinko mantendu behar zen klaseko independentzia duen politika.

Iraultzak aurretik eraman baino egun batzuk lehenago, eta programa boltxebikeak lortu zuen eraginari esker, behin-behineko gobernuak autodeterminazio eskubidearen aldeko adierazpena egin zuen. Halere, ez zen nahikoa izan eta, gainera, ordurako berandu zen. Iraultzaren ezaugarria da masek gertakarietan modu aktiboan parte hartzen dutela eta azkar ikasten dutela. Eta masek, beren esperientziaren bidez, ondo ikasia zuten zein zen errusiar burgesiaren benetako izaera; galduta zuten behin-behineko gobernuarenganako konfiantza eta ez ziren apur-rekin konformatzen. Horrela ireki zen Urrirako bidea.

Ikus daitekeenez, boltxebikeek auzi nazionalaren aurrean izan zuten jarrera garrantzitsua izan zen Errusiar Iraultzak garaipena lortzeko; gainera, garaipen horrek mundu osoan eragin zuen uholde iraultzailea. Trotskyk esan bezala: “Zeinahi dela ere Errusia sobietikoaren ge-roa, (...) Leninen politika nazionala gizateriaren ondare bilakatuko da, betirako”.

* Trotskyren aipu guztiak Federico Engels Fundazioak argitaratutako *Historia de la Revolución Rusa* liburuko “Auzi nazionala” kapitulutik hartu eta euskaratu ditugu.



Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari erasorik ez!

Milaka pertsonak kaleetan erantzun die EAJ-PSEren gobernuaren erasoei

AXI KURGAN

Bazterketa sozial edo pobrezia egoerei aurre egiteko dugun tresna apurretako bat da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. Kapitalisten eskuetatik kentzea lortu dugun garaipen bat da, politika neoliberalak kondenatzen gaituzten langabezia eta prekarietate egoera zailen duintasun pixka batekin aurre egitea baimentzen diguna. Hori dela eta, enpresari handien eta bankarrien zerbitzura dagoen Eusko Jaurlaritza hori likidatzen saiatzen da. Manipulazioz beteriko eta pertsekuziozko kanpaina bat habiarazi berri du laguntza hauek jasotzen dituztenen aurka.

Aurreko legegintzaldian, EAJak Gipuzkoan EHBilduk onartu zuen DBL (Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza) ezabatu zuen, Lanbideren lana desprestigiatu zuen eta DBEaren aurka egin zuen kontrolpean dituen komunikabideetatik (El Correo, DV, EITB...). Azken hauteskundearen ondoren, Urkullu buru duen gobernuak ofentsiban jarraitzen du PSEren laguntzarekin. Lehen neurri gisa, DBEaren igoera KPIaren arabera ezarri dute (%1,5 bakarrik), eta uko egin diote araudiak dioen bezala lanbide arteko gutxieneko soldataren igoerara lotzeari, %8a izan beharko lukeena. Aurrekontuak egokitzea izan da berriz ere horren aitzakia. Loia darien murrizketen politikak aplikatzen jarraitzen dute, 2011ean Patxi Lopezen gobernuak egin zuen bezala, %7a



murriztu zuenean DBEa. Politika kapitalista horiek laguntza hauen menpe bizi behar duten milaka familien egoera benetan larriagotu besterik ez dute egiten.

Murrizketa basati hauekin nahikoa ez eta hurrengo pausoa laguntza jasotzen dutenak are gehiago kriminalizatzea izan da. Komunikabideen dianaren erdian ezarri dituzte gezurren kanpaina lotsagarri baten baitan. Lakuako gobernuak iruzurren aurkako politika bat sortu berri du "laguntza sozialak jasotzeko orduan kudeaketa hobetzeko eta irregularitasunak ekiditeko", Enplegu eta Politika Sozialen sailburua den Beatriz Artolazabalen arabera. DBE kudeatzen duen Lanbideko erabiltzaileak, hatz-marka digitalez identifikatu beharko dute iruzurrak saihesteko. Beti bezala kolektibo migratzaileari lotzen zaizkio "gaitz" horiek egu-

nero komunikabideek desinformatzen duten moduan.

Gobernuaren bide orrian DBE eskuratzeko baldintzak are gehiago gogortzea dago. Pertsona migratzaileak konplikatua edukiko dute laguntza horiek jasotzeko aukera izatea, ekintza xenofobo eta protekzionista horiek inplikatzeko duten jazarpen soziala areagotuz. Langile klaseak beste behin erakutsi du ez duela utziko jeltzaleek inpunitatez jarraitu dezaten eta murrizketa horien aurka mobilizatu da. Horren adibide esanguratsu dira murrizketa soizlak salatzeak gose grebari ekin zioten bost pertsonak eta joan den apirilaren 1ean Bilboko kaleak igaro zituen manifestazioa, milaka partaiderekin, agerian utziz EAJ-PSE gobernuak herri langile euskaldunaren uarka eragiten duen errepresio ekonomikoa.



ELKARTASUNA
maiatzaren 16 eta 23ko
irakasleen
grebarekin!

Denok maiatzaren 20ko manifestazioetara!

EAJ, PSE eta PPren babesarekin egoera benetan larrira eramaten ari da hezkuntza publikoa EAEn. Urtez urte ari da bere eskuineko politika klasistak aplikatzen, hezkuntza publikoari murrizketak eginez, kontzertatu-pribatuari irabazi gehiago emanez, LOMCE aplikatzen Heziberriren bitartez, etab.

Politika hauen ondorioak zuzenean sufritzen ditugunak langile familiak gara, hauetatik gatozen gazteak, irakasleak, etab. Haur eskolatan edo Lanbide Hezkuntzan plazak ez daudela ikusten dugu, ikas gelak masifikatu egiten direla eta geroz eta ikasteko aukera gutxiago dagoela institutu publikoetan, unibertsitatea ordainezina da... Ez daude nahikoa irakasle, eta daudenek nahiz eskoletako langileek geroz eta baldintza prekarioagoetan egiten dute lana.

EAJ PPekin aliatu da

Urkulluren gobernu berriak ez du inolako asmorik egoera hau aldatzeko. PSEren eta PPren laguntzarekin onartutako aurrekontuak murrizketen politikarekin jarraitu nahi dute. Orain EAJ bera izango da Rajoyren gobernu salbatuko duena, PPren aurrekontu antisozialak babestuz. Benetako orduan, berriro

ere, EAJ bere eskuineko laguna den PPekin elkartu da; hain zuzen ere LOMCE, errebalidak eta 3+2 diseinatu duen PPekin, ustelkeriaren eta hipokresiaren PPekin. Gazte eta langileoi sakrifizioak egiteko eskatzen zaigu txintik atera gabe, kriminalizatu egiten gaituzte borrokatzeagatik, eta bitartean, beraiek eta beren lagun bankariak eta enpresariak dirutzak pilatzen dituzte.

Boikota errebalida frankistei

EAJ behin eta berriz saiatu da gu engainatzen ustez LOMCEaren aurka zuen jarrerarekin. Baina ekin tzetan beraiek izaten ari dira hemen erreforma hori ezartzen ari direnak. Maiatzean, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Gobernuak, azterketak inposatu nahi dituzte LHko 3. eta 6. mailan, DBH 4. mailan eta 2. Batxilerrean, eta horien inguruan inolako informaziorik eman gabe gainera. Nahiz eta ikasturte honetan balio akademikorik ez duten izango, azterketa hauek errebalida frankisten helburu berbera dute. Horregatik Ikasle Sindikatutik dei egiten diegu datorren maiatzaren 20ko manifestazioetan parte har dezaten.

errebalida frankistetatik libratzea, froga hauek ez dira derrigorrezkoak eta ez ditugu egingo!

Borroka bateratzea eta jarraitzea da bidea

Euren maniobra desegiteko modu bakarra kalean elkarturik borrokatzea da, mobilizazioekin jarraituz. Horregatik Ikasle Sindikatutik gure babesa helarazi nahi diegu irakasleei LAB, ELA eta STEILAS sindikatuek maiatzaren 16 eta 23rako eginiko greba deialdian. Positiboa dela uste dugu beste sindikatuak greba egun hauetako batetara gehitu izana ere, eta uste dugu bidea ahalik eta batasun gehien lortzea dela. Horregatik, ikasleei, gurasoei eta hezkuntza komunitate guztiari ere dei egiten diegu datorren maiatzaren 20ko manifestazioetan parte har dezaten.

LOMCE, Heziberri eta 3+2 ez!
Boikota errebalida frankistei!
Hezkuntza publiko eta euskaldunaren alde!

Zatoz manifestazioetara! • 12tan
Bilbon (Jesusen Bihotza)
Gasteizen (Bilbo Plaza)
eta Donostian (Boulevard)

ANTOLATU ZAITEZ

EZKER IRAULTZAILEAN!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN
AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Ikasle Sindikatuak urriaren 26rako hezkuntza komunitateko greba orokorrera egindako deia adibide bikaina da. LOMCEk eta errebalida frankistek milaka gazte bigarren hezkuntzatik kanporatu nahi ditu, eta unibertsitaterako sarbidea itxi nahi diete. PPren Gobernuaren motibazioa hauxe da: langile familetako gazteen etorkizuna prekarietatea eta lan zapalkuntza bada, zertarako gastatu dirua beren hezkuntzan?

Ezker Iraultzaileak aktiboki babesten du U26ko ikasle greba, eta uste dugu mobilizazio soziala berreskuratzeko abiapuntutzat hartu be-

har dela. Hori dela eta, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko zuzendaritzei eskatzen diegu ez daitezela mugatu Parlamentuko oposizioa, ez dezatela itunik egin EAJrekin eta ez daitezela erori sistemako gainerako alderdien planteamenduetan. Masen mobilizazioa sustatzeko ardura dute, M15ekin, greba orokorrekin eta gure herriaren eskubide demokratikoen al-

deko borrokarekin hasitako borroka berreskuratu behar dute.

Antolatzeke garaia da!

Ezker Iraultzailea osatzen dugun Euskal Herriko langile eta gazteok Ikasle Sindikatuan, langile klasearen borroketan eta mugimendu sozialetan parte hartzen dugu programa antikapitalista, sozialista eta internazionalista defendatuz. Ez gara konformatzen noizean behin bozkatzera joanda. Aritmetika parlamentarioek ez dute lortuko euskal burgesiaren edo burgesia espainiarraren edo europarraren planak atzera botatzea. Kapitalistak garaitu nahi baditugu, azken urteetan eskuina kinka larrian jarri duen altxamendu sozialean sakondu behar dugu; eta borroka hau antolakuntza iraultzaile bilakatu behar dugu gure ikastetxeetan, enpresetan, lantokietan, herri, hiri eta auzoetan. Herriak bakarrik salba dezake herria.

Antola zaitez Ezker Iraultzailean!

Parte hartu Ezker Iraultzailearen taldeetan unibertsitatean, institutuan eta lantokietan!

Helbide hauetan bat egin dezakezu gurekin:

www.euskalherriasozialista.net / www.izquierdarevolucionaria.net

- LOMCE, errebalida frankistak eta 3+2 atzera botatzearen alde. Hezkuntza publiko duina, demokratikoa eta doakoa haur eskolatik unibertsitatera bitartean.
- Osasun duina, doakoa eta unibertsala guztiontzat.
- Etxe kaleratzeak legez debekatzea. Etxebizitza publikoak alokairu sozialekin, bankuen esku dauden etxebizitza hutsak desjabetu behar dira!
- Lan erreformak eta pentsioen erreforma indargabetzea. Erretiroa 60 urterekin, soldataren %100arekin eta gazteentzat errelebu kontratuarekin.
- Benetako elkartasuna errefuxiatuekin: ez kuporik, zentro itxirik! Atzeritarren Legea indargabetu behar da eta CIEak itxi!

- Pribatizatu dituzten zerbitzu publikoan bermunizipalitzatu behar dira, langile kopurua mantendu edo handiagotuz eta lan eskubideak bermatuz.
- 1.100 euroko oinarrizko soldata eta 35 orduko lan astea soldata jaitsi gabe.
- Adierazpen, elkartze eta antolatze eskubideak bermatzea. Mozal legea indargabetzea.
- Bankaren eta ekonomiako sektore estrategikoen nazionalizazioa pertsonak salbatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Catalunyaen, Euskal Herriaren eta Galizaren autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herria sozialistaren eta errepublika sozialistaren alde.

EAJk negozioa egin nahi du gure osasunaren eta diru publikoaren kontura!

Erraustegirik EZ!

IKER OTERMIN

Mafiaren estilo hutsean, modu autoritario eta demagogiko batean, EAJ-PSEren Gipuzkoako diputazioak Zubietako erraustegiaren obrak hasi ditu berriro. Presaka ari dira, helburua obrak legegintzaldi honetan amaitzea baita, horrela hurrengo zortzi legegintzaldietan zorretan uzteko diputazioa eta herriak. Errausketa-instalazio honen eraikuntzak interes bakar bati erantzuten dio: eraikuntzako eta hondakinen kudeaketako enpresariak diru publikoarekin aberastea. Baina ordaindu beharko dugun prezioa altuegia da, nola diru publikoan hala gure osasunean eta ingurugiroan izango dituen ondorioetan.

Erraustegiaren pribatizazioa negozio oso gozoa da Urbaser nagusi duen enpresa taldearentzat. Hain zuzen ere enpresa hau gertatu berri den Lezo operazioan, Punikan eta Katalunyako %3an inplikaturik egon da. Lizitazioaren datu publikoen arabera, erraustegiaren eraikuntza eta kudeaketa 768 milioi kostako dira, urtero 23,6 milioi euro ordainduz, 32 urte eta erdian. Aldundiak ezabatu duen diru-sarrerak bermatzeko laguntza esate baterako, horren erdia baino gutxiago kostatzen da (11 milioi). Baina argitaratu duten zifra honek ez du kontuan hartzen hurrengo hiru hamarkadetakoinflazioa. Hori gehituz diru publikoaren xahutzea gutxienez 1.085 milioi eurotara igoko litzake. Gainera, proiektuaren arriskuak eta gailakostuak administrazioak hartzen ditu beregain. Horrela, Urbaser



enpresarentzat eta bere sozioentzabide segurua ireki die mozkinak jasotzeko. Eta denari txapela jartzeko, EAJk berriz ere swap-a kontratatu du (aktibo toxiko ezagunak), 2011an justu legegintzaldia amaitu aurretik angulak janez ospatu zuten hartan bezala.

Erraustegia defendatzeko propaganda ustez edukiko duen modernotasunean eta teknologia arreratuan oinarritu da. Hori da beti esaten zaiguna behar ez dugun eta azpi-erabilia egongo den azpiegitura bat saldu nahi zaigun bakoitzeke. Baina jada badaude nahikoa ikerketa baieztatzeke nola errauskailuek minbizia kasuak eta bihotzeko zein arnas aparatuko gaixotasunak larriki handitzen dituzten 10-15 kmtako erradioan bizi direnen osasunean, 300.000 kasu honetan.

Argi dago alternatibak existitzen direla, baina EAJkoek ez dituzte

entzun ere egin nahi. Hainbeste dabilte ahoan Euskal Herria, gero behin eta berriz saldu, suntsitu eta gehiengo zabala esplotatzen dutela. Guztia ahalik eta irabazi handienaren izenean. Berriz ere argi geratzen da atez atekoaren aurka erabili zuten demagogia eta propaganda guztia EHBildu diputaziotik botatzeko eta lapurreta basati hau martxan jartzeko egin zutela.

Egia esan, ikerketak, teknologiak eta planifikazioak alternatiba hau sortzeko eta hobetzeko balio lezakete, bai hondakinen kudeaketan bai bizitzaren beste hainbat arloetan ere. Baina funtsezko gakoa horiek erabiltzen eta garatzen diren helburuan datza. Sistema kapitalistan enpresarien irabazi maximoa da. Horrekin amaitzeko borrokatuz eta gizarte sozialista bat eraikiz soilik lor dezakegu pertsonen eta planetaren mesedetan izan daitezen.

ANTOLATU ZAITEZ EZKER IRAULTZAILEAn!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!

Ekainaren 26ko hauteskunde on-doren, etengabe izan dira eskuineko gobernua osatzeko saiakerak. Prozesu honen parte da IBEX 35ek antolatu eta Felipe Gonzalezek, Susana Diazek eta "baroiek" areagotu duten PSOEren krisia. Kapitalisten helburua da gobernu berriak murrizketak inposatzen eta gure oinarritzko eskubide demokratikoak zapaltzen jarraitzea, nazionalismo espainiarren bandera altxatuta, eta osasunaren eta hezkuntza publikoaren pribatizazioan, lan erreformetan eta lan prekarietatean sakontzea; eta berdin die Gobernua PSOEko parlamentarien abstentzioarekin lortu den edo hirugarren hauteskundeekin.

Euskal Herriko langile eta gazteok ondo dakigu zer den eskuineko gobernua izatea, bai Madrilen PPrekin, bai EAEn EAJrekin eta bai Nafarroan UPNrekin. Azken urte hauetan gogor jasan ditugu beren politikak eta hauen kontrako mugimendu indartsua eraiki dugu. Hauteskundeetan ere, gure altxamenduak aldaketa handiak ekarri ditu. Podemosen agerrerak edo EH Bilduri emandako babesak erakusten dute gizartea aldatzeko milaka eta milaka gazte eta langileok dugun borondatea. Hala ere, aldaketa hau ez da lortuko parlamentuetako eztabaietan, ezta hauteskundeetan emaitza bikainak lortuta ere.

Greziako esperientzia oso baliagarria da hau ulertzeko: greziarrek Syriza jarri zuten gobernuan, Troikaren inposizioen aurkako erreferendumean masiboki bozkatu zuten, baina Tsiprasek indar honi guztiari bizkarra eman eta botere ekonomiko handien aurrean makurtu zen. Greziarako balio duenak, Euskal Herriarako eta Estatu espainiarerako ere balio du. Kapitalismoak ez du funtzionatzen zentzu komunaren, logikaren eta gehiengoaren onuragarri denaren arabera. Enpresari handien eta bankarien interesen arabera funtzionatzen du, beraiek kontrolatzen dituzte Estatua eta botere politikoaren palankak. Inork aukeratu ez duen baina burdinazko eskuarekin agintzen duen elite pribilegiatuarekin hautsi ezean, diskurtso "aurrerakoiena" ere antzu geratzen da.

Mobilizazioa eta programa iraultzailearen defentsa

Eskuina eta bere erasoak garaitzeko bide bakarra daukagu: mobilizazio indartsu eta denboran luzatuko dena eta sufritzen ditugun arazoek muinera joango den programa defendatzea, hau da, kapitalismoarekin amaituko duen programa iraultzailea.

22. ORRIAN JARRAITZEN DU

EZKER IRAULTZAILEA

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Laguniezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

**www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista**

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Laguniezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.**